ALBIZTURKO UDALA (Gipuzkoa)
AYUNTAMIENTO DE ALBIZTUR

ESP.	**2023IPLE0008**
ATALA.	**IDAZKARITZA**
GAIA	**ALBIZTURKO UDALEKO OHIKO BILKURA**

2023-09-26ko UDALEKO OHIKO BILKURA

Albizturren, 2023ko irailaren 26an, arratsaldeko 19:30tan, udaletxeko udalbatza-aretoan, Udaleko ohiko batzarra egin da, Alkate Iñaki Orbegozo Arrospide jauna duela.

BERTARATUAK:

- Iñaki Orbegozo Arrospide
- Alazne Urkizu Galarraga
- Oier Aramendi Otamendi
- Martin Urdangarin Larrarte
- Sabier Urkizu Agirre
- Ekiñe Aizpurua Gimenez

BERTARATU EZ DIRENAK:

- Mikel Galarza Arrue

Udaleko idazkari kontu-hartzailea:

- Oihan Ostolaza Arruabarrena

AZTERGAIAK

1. AURREKO AKTAREN ONARPENA
2. ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA
3. 2022KO KONTU OROKORRAREN BEHIN BETIKO ONARPENA
4. LANDA LURZORUKO LUR SAILAK MUGATZEKO DIRULAGUNTZA
5. KONTRATAZIO ZENTRALA: POSTA ESPEDIENTEA 2023.
6. 3. GRADUKO BABES MAILA DUTEN ERAIKINETAKO OBRETAN JARRAITU BEHARREKO IRIZPIDEAK
7. IDOIAGA GOIKOA-KOEN ESKAERA
8. ALBIZTURKO FESTA BATZORDEAREN ESKAERA
9. GALDERA ERREGUAK

1. AURREKO AKTAK ONARPENA

2023-06-26ko akta aho batez onartu da.

2. ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

2023ko 45 eta 57 bitarteko dekretuen berri eman da.

3. 2022KO KONTU OROKORRAREN BEHIN BETIKO ONARPENA

Kontuan harturik jende aurrean egon den epean ez dela inolako alegaziorik izan, Osoko Bilkurak aho batez honakoa erabaki du:

Lehena.- 2022ko kontu orokorra onartzea.

Bigarrena.- TVCP/HKEE-ra bidaltzea.

4. LANDA LURZORUKO LUR SAILAK MUGATZEKO DIRULAGUNTZA

2022. urtean Albizturko Udalak landalur sailen digitalizaziorako dirulaguntza eskatu zuen eta Geograma espresaren eskutik 2. poligonoko lursailak digitalizatzen aritu da.

Geograma enpresak egindako lanaren balorazioa txarra da orokorrean, bai emandako tratuari dagokionez eta baita egindako lana ez delako bat etorri agindutakoarekin ere.

Ahalik eta azkarren banatu behar dira Geogramak neurketekin prestatu dituen liburuxkak herritarren artean, desadostasunak aurkezteko denbora izan dezaten eta neurketetan egon daitezken akatsak zuzentzeko.

Bestalde, Geograma enpresak 2. poligonoan egin duen lana ikusirik, ez du zentzurik 3. poligonoko landalur sailak mugatzeko lanak lizitatu eta Geograma enpresari emateak (arlo horretan lan egiten duten enpresa gutxi daudenez aukera handia dago), nahiz eta modu horretan 2023. urteko dirulaguntza galtzen den.

Gaia aztertu ondoren, Osoko bilkurak aho batez honakoa erabaki du:

Lehena.- 3. poligonoko landalur sailak mugatzeko lanak ez lizitatzea 2023. urtean.

5. KONTRATAZIO ZENTRALA: POSTA ESPEDIENTEA 2023.

Gipuzkoako Foru Kontratazioen Zentralak, posta espediente berri bat irekitzeko asmoa du eta Albizturko Udalari ere atxikitzeko gonbitea egin zaio.

Gaia aztertu ondoren, Osoko bilkurak aho batez honakoa erabaki du:

Lehena.- Postaren esparru akordioaren kontratazio espedienteari atxikitzea.

Bigarrena.- Gipuzkoako Foru Kontratazioaren Zentralari erabakiaren berri eman eta beharrezko dokumentazioa osatzea.

6. 3. GRADUKO BABES MAILA DUTEN ERAIKINETAKO OBRETAN JARRAITU BEHARREKO IRIZPIDEAK

Albizturren eraikin zahar asko zeuden hutsik, eta azken aldian hauetako asko saldu eta eraberritu egin dira.

Eraikin hauek eraberritzeko indarrean dauden irizpideak oso zorrotzak dira, Albizturko Udalak kexa asko jaso ditu, eta kasu batzuetan oztopo izan dira eraikin zaharrak birgaitzeko.

Gaia aztertu ondoren, Osoko bilkurak aho batez honakoa erabaki du:

Lehena.- 3. graduko babes maila duten eraikinetan, eta beraz, erabakiak hartzea Albizturko Udalari dagokion kasuetan, orain arteko irizpide zorrotzak aldatu egingo dira, herrian dauden eraikin zaharrak zaharberritzea erakargarriagoa izan dadin:

- Leiho eta ateen materialari dagokionez, ez da derrigorrezkoa izango jatorrizkoa mantentzea, beti ere, kolorea ez bada aldatzen.
- Leiho eta ateak 2 orrikoak edo orri bakarrekoak izango dira, nahiz eta jatorrizkoa aldatu.

7. IDOIAGA GOIKOA-KOEN ESKAERA

Idoiaga Goikoa baserriko jabeek Albizturko herria eta Idoiaga baserriaren artean errepide bat egiteko eskaera egin dute. Baserria txerri esplotazio bat egiteko erabiliko da eta, eta horretarako eta baserriaren erreforma egiteko beharrezkoa da errepidea.

Albizturko Udala herritarrak bizi diren baserrietara iristen diren errepideak egoki mantentzen edo ez badaude egiten saiatzen da, nahiz eta baliabide urriak dituen horretarako (Gipuzkoako Foru Aldundiak urtero ateratzen duen dirulaguntza eskatzen du).

Idoiaga Goikoa baserrira errepidea iristeko egon daitezken aukerak aztertu ziren duela urte batzuk, eta aukera desberdinek inbertsio handia suposatzen dute (Albizturko Udalak ez du baliabiderik mota horretako errepide bat egiteko, eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren dirulaguntza ez da izaten mota honetako inbertsioetarako).

Gainera, ez da inor bizi (salgai dago) eta txerri esplotazio bat martxan jartzeko asmoa azaldu dute jabeek.

Gaia aztertu ondoren, Osoko bilkurak aho batez honakoa erabaki du:

Lehena.- Ez onartzea Idoiaga Goikoa baserriko jabeek egin duten eskaera.

Bigarrena.- Interesatuei erabakiaren berri ematea.

8. ALBIZTURKO FESTA BATZORDEAREN ESKAERA

Albizturko Festa Batzordeak frontoi azpian dagoen lokal bat eskatu dio Albizturko Udalari, herrian aurrera eramaten dituzten ekimenetarako beharrezkoa dutelako.

1.994. urteko urriaren 20an Albizturko Udalak eta Albizturko Arkaitz Elkarteak sinatutako hitzarmenaren arabera, Albizturko Arkaitz Elkarteak 30 urtean Udal Frontoi ondoko lokala eta ondoko gela txikia (bulego bezala) erabiltzeko baimena dauka. Baina gaur egun, almazen moduan, langile lokalaren ondoko gela ere erabiltzen dute (nahiz eta oso erabilera urria duen).

Albizturko hautetsien ustez gela hau da egokiena Albizturko Festa Batzordeari uzteko, eta Albizturko Arkaitz Elkartekoekin hitz egitekotan geratu gara.

9. GALDERA ERREGUAK

- Albizturko Eskolaren eskaera: Albizturko Eskolak dirulaguntza eskatu dio Albizturko Udalari, irteeratan diru asko gastatzen dutelako autobusetan, eta “Bertsolaritza” proiektuan ere dirua gastatu dutelako. 2024. urteko aurrekontuetan aztertuko da Albizturko Eskolari eman beharreko dirulaguntza (2023. urteko aurrekontuko dirulaguntza eman zaie dagoeneko).

- Azarola Goikoa-ko portxearen epaiketa: Aste honetan kaleratu da Azarola Goikoa-ko portxearen epaia eta Albizturko Udalaren aldekoa da. Orain errekurtsoa aurkezteko aukera dute Azarola Goikoa-koek.

- Azarola Goikoa-ko langaren epaiketa: Irailaren 20an zen Azarola Goikoa-ko langaren epaiketa baina bertan behera geratu zen. Data berriaren zain gaude.

Osoko bilkura, 21:05etan eman du amaitutzat Alkateak eta bertan azaldutakoa jasoa gera dadin honakoa sinatzen dut.

Albizturren, 2023ko irailaren 27an

72538480E IÑAKI ORBEGOZO (R: P2000400H)
Firmado digitalmente por 72538480E IÑAKI ORBEGOZO (R: P2000400H)
Fecha: 2023.10.25 08:59:56 +02'00'

OIHAN OSTOLAZA ARRUABARRENA - 72477498J
Firmado digitalmente por OIHAN OSTOLAZA ARRUABARRENA - 72477498J
Fecha: 2023.10.25 09:01:45 +02'00'